

IDEIA

Espainiako familiek, batez beste, 375 euro gastatzen dituzte urtean oinetakoetan. Zapatak erosterakoan, garrantzitsua da oinetakoen zolari erreparatzea, zapaltzen den lur eta egiten den jarduera bakoitzerako egokia izan behar baitu. Bestalde, oinetakoen industriaren ingurumen-inpaktua inportantea da, INESCOPen (Oinetakoen Institutu Teknologikoa) ikerketa baten arabera, zapata pare bat bakarrik fabrikatzeak 23.3 kg CO2 sor ditzake.

STABLE SOLE deitzen den gure ideia, hiriko edo kiroletako edozein zapatilatarako balioko luke zapatilak dira. Horien zola, "contagrip" motakoa litzateke, modu eroso eta seguruan ibili ahal izateko, lurzoru mota edozein dela, etxean dirua eta lekua aurrezteko, bai eta ingurumenari kalte gutxiago egitea ere ekarriko luke.

